



**PEÑA LA UNICAREN PRENTSA OHARRA  
2017KO SANFERMINETAN GURE EGOITZAN JAZOTAKO ERASO SEXISTARI BURUZ**

Prentsa ohar honekin La Única Peñak Iruñeko jendarteari jakinarazi nahi dio gure egoitzan eraso sexista bat jazo zela pasa den 2017ko uztailaren 11n. Halaber, oharraren bitartez, eraso jazo zenetik gaur arte eman diren urratsen berri eman nahi dugu.

Uztailaren 11 haren goizalde hartan, eraso gertatu eta berehala, Peñan zeuden bazkideek Gora Iruñeak, Bortizkeria sexistaren aurkako emakumeen plataforma eta Peñen Federazioarekin elkarlanean sorturiko erasoen aurkako protokoloa martxan jarri zuten. Honi esker, eraso pairatu zuen emakumea maila pertsonalean eta legalean lagunduta, babestuta eta zainduta egon zen lehenengo unetik bertatik.

Hasierako urratsak eta emakumeak jarritako salaketaren ostean, epaibidea hasi zen eta, eraosturiko emakumean laguntzeko asmoz betiere eta lehen aipatutako kolektiboekin batera lan eginez, La Única Peñak, Batzarrean zabalik dagoen **epaibidean akusazio partikular bezela bere burua aurkeztea erabaki zuen, aho batez**. Epaileak eskaera onartu zuen.

Ekimen hau berritzaile dela jakitun gara. Elkarteak edota kolektiboak mota honetako epaibideetan akusazio partikular izatea ohikoa ez dela badakigu, baina berdintasunezko jendarte baten aldeko gure eguneroko jardunarekin koherentea dela deritzogu eta gaitz honen aurkako konpromiso handiagoak eta borroka molde berriak ireki behar direla uste dugu. Honetatik epaitegietako prozeduretan parte hartzearen beharra ondorioztatzen bada, guk halaxe egingen dugu eta, bide batez, beste elkarte, txoko eta antzeko kolektiboek gauza bera egin dezaten animatu nahi ditugu. Emakumeen kontrako bortizkeriaren aurrean aldarri ozena osatzea lortu dugu guztion artean Aldarri hori neurri eraginkor bihurtzeko garaia da.

Eraso sexistek guztion oinarrizko eskubideak urratzen dituzte eta ez dugu gertatzen jarraitzea onartuko, ez "gure etxean" ez eta inongo beste tokitan. Horrexegatik, edozein motatako eraso sexista, homofobo, arrazista eta abar, errotik kentzeko gure esku dauden tresna guztiak erabili egingen ditugu eta besta aske eta parekideak lortuko ditugu.

Bide batez, prebentzio eta kontzientzia-hartzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Bizi izan dugunak hala erakutsi digu: eraso sexisten aurka espezifikoki zuzendurik dauden protokoloen diseinu, prestaketa eta martxan jartzea ezinbestekoa da berauei behar bezala aurre egiteko. Norabide honetan oraindik lanean hasi ez diren talde, elkarte, taberna eta abarrak aipatu protokoloak martxan jar ditzaten animatu nahi ditugu, hala nahi badute dagoeneko ildo honetan lanean gauden kolektiboekin elkarlanean.

Iruñea, 2018ko Otsailaren 18an

Koldobi Osta.  
La Unica Peñaren Presidentea.



## NOTA DE PRENSA DE LA PEÑA LA UNICA ACERCA DE LA AGRESION SEXISTA EN NUESTRO LOCAL EN SANFERMINES DE 2017

Mediante esta nota de Prensa la Peña La Única informa a la sociedad de Pamplona-Iruñea de que el pasado 11 de julio de 2017 se produjo una agresión sexista en los locales de nuestra Peña así como de los diferentes pasos que se han venido dando desde el momento en que se produjo la agresión hasta el día de hoy.

Aquella madrugada del 11 de julio, nada más suceder la agresión, los socios y socias presentes en la Peña pusieron en marcha de forma inmediata el protocolo anti-agresiones diseñado y puesto en marcha por Gora Iruñea, la Plataforma de Mujeres contra la violencia sexista y Federación de Peñas gracias a lo cual la mujer agredida estuvo acompañada, protegida y atendida tanto personalmente como legalmente desde el primer momento.

Tras estos primeros pasos y la consiguiente denuncia por parte de la mujer agredida, comenzó el proceso judicial correspondiente y siempre desde el acompañamiento y apoyo a la mujer agredida y trabajando codo con codo con los colectivos mencionados, La Peña La Única reunida en Asamblea decidió por unanimidad **personarse como acusación particular en el proceso judicial que está abierto**, acusación que ha sido admitida por el juez.

Somos conscientes de que esta iniciativa es novedosa, que no es habitual que sociedades o colectivos se personen como acusación particular en procesos judiciales de esta índole, pero pensamos que este paso es coherente con nuestro quehacer diario a favor de una sociedad más igualitaria y también que es necesaria una mayor implicación en la lucha contra la violencia sexista abriendo nuevos canales de lucha. Si eso supone también participar activamente en procesos judiciales, lo haremos y animamos a otras entidades, sociedades, txokos, etc. a proceder del mismo modo. Entre todas y todos hemos conseguido que el rechazo social a la violencia contra las mujeres sea un clamor, toca ahora que ese clamor se convierta en medidas efectivas contra la misma.

Las agresiones sexistas vulneran derechos fundamentales de tod@s y no vamos a tolerar que continúe ocurriendo ni en “nuestra casa” ni en cualquier otro espacio, por ello utilizaremos todas las herramientas a nuestro alcance para erradicar cualquier tipo de agresión sexual, homófoba, racista etc y conseguir una fiestas libres e igualitarias.

Asimismo, queremos resaltar también la importancia de la prevención y concienciación, en este sentido la experiencia vivida nos ha enseñado que el diseño, preparación y puesta en marcha de protocolos específicamente diseñados para luchar contra las agresiones sexistas son indispensables para combatirlas de forma eficiente. Por lo que animamos a aquellas entidades, sociedades, hostelería, etc que todavía no han trabajado en esta dirección a que implementen los correspondientes protocolos en colaboración con los colectivos que trabajamos en este ámbito.

Pamplona a 18 de febrero de 2018

Koldobi Osta.  
Presidenta Peña La Única.